



EUSKAL HERRIKO LANDARE MEHATXATUEN ETA INTERESEZKO LANDAREEN EX SITU KONTSERBAZIORAKO EKIMENAK

Leire Oreja¹ eta Maialen Arrieta¹

¹Botanika Saila. Aranzadi Zientzia Elkartea. Zorroagagaina 11. 20014 Donostia. loreja@aranzadi.eus

TESTUINGURUA:

Mundu mailako biodibertsitatearen galeraz arduraturik, lehenengo **Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmena** sinatu zenez geroztik (Rio de Janeiro, Brasil, 1992), hamaika izan dira biodibertsitatearen alde eginiko saiakerak. Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmenaren barnean, **Landareen Kontserbaziorako Estrategia Orokorra** programa garatzen da, zeinetan landare mehatxatuen kontserbazioaren inguruan ere jarduten den. Bertan, herrialde bakoitzeko **landare mehatxatuen %75-a ex situ eta in situ kontserbatu** behar direla adierazten da.

Azken hamarkadetan beraz, *ex situ* (espezieen banaketa eta habitat naturaletatik kanpo) gauzatzen diren ekimenak, landareen biodibertsitatea kontserbatzeko tresna garrantzitsuak dira. *Ex situ* eginiko ekimenek ordea, ez dira helburu hutsak, *in situ* (espezieen banaketa eta habitat naturaletan) eginiko ekimenekin integraturik eta berreskuratze planekin uztarturik egon behar dute.

Landareen kontserbazioarako eginiko *ex situ* ekimenen baitan germoplasmaren kontserbazioak berebiziko garrantzia du eta horretarako sortu zuen 2008. urtean **Gipuzkoako Foru Aldundiak Landareen Germoplasma Bankua**, zeinetan Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanikako Sailak alde teknikoa koordinatzen duen.

HELBURUAK:


- Germoplasma Bankuen *ex situ* kontserbaziorako azpiegiturak ezagutzea.
- Germoplasma Bankuan *ex situ* kontserbaziorako lanetan egiten diren protokoloak ezagutzea.
- *Ex situ* kontserbazio lanak *in situ* kontserbazio lanak uztartzen ikastea.



Arnica montana



Hozitze protokoloak. Hazien repikadoa




Arizmendiko mintegia



Hazi bilduma



Hazien lehorketa



Alyssum loiseleurii subsp. *loiseleurii*



Culcita macrocarpa



Menyanthes trifoliata



Prunus lusitanica

ESKAINTZEN DENA:

Praktikak.

NORI ZUZENDUA:

Biologia eta Natur Zientzien graduko ikasleei zuzendua. Botanikako oinarrizko jakintzak lagungarriak izango dira.

IRAUPENA:

Ez du iraupen zehatzik. Proiektua martxan denez edozein momentutan has daitezke praktikak.

NON:

- **Laborategiko lana:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landarren Germoplasma Bankuan: Fraisoroko Nekazal Laborategia (Zizurkil), Arizmendiko Mintegia (Urnieta) eta iturraran Lorategi Botanikoa (Pagoeta, Aia).
- **Mendiko lana:** batik bat Euskal Herria eta baliteke beste lurraldea batzuetan ere lan egin behar izatea (Aragoa, Kantabria, Soria...).